

**2023KO MARTIAREN 29KO BATZAR NAGUSIAREN
BATZAR-EGUNKARIA (ITZULPENA)**

**DIARIO DE SESIONES DE LA SESIÓN PLENARIA DE
FECHA 29 DE MARZO DE 2023 (TRADUCCIÓN)**



AURKIBIDEA

Orrialdea

- Batzarra hasi da.....	4
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako lehenengo puntua irakurri dau: “Bizkaiko merkataritza bultzatzeko hartu behar diran neurriak.”	4
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Martínez Fernández batzarkide andreak hartu dau berbea.....	4
- Ekonomia Sustatzeko foru diputatu Basurko Urkiri andreak hartu dau berbea	6
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Martínez Fernández batzarkide andreak hartu dau berbea.....	8
- Ekonomia Sustatzeko foru diputatu Basurko Urkiri andreak hartu dau berbea	9
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bigarren puntua irakurri dau: “Gardentasunagaz, parte hartzeagaz eta, azken baten, gobernu onagaz lotutako zenbait alderdi.”	10
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea	10
- Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu Etxanobe Landajuela andreak hartu dau berbea.....	12
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea	14
- Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu Etxanobe Landajuela andreak hartu dau berbea.....	15
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako hirugarren puntua irakurri dau: “Gaixotasun mentala duten pertsonak.”	16
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea	17
- Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatu Laespada Martínez andreak hartu dau berbea	18
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea.....	21
- Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatu Laespada Martínez andreak hartu dau berbea	22
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako laugarren puntua irakurri dau: “Bizkaiko entitate pribatuek jasotako diru publikoaren kontrola.” ..	23



- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea	23
- Ahaldun Nagusi Rementeria Maiz jaunak hartu dau berbea	26
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea	29
- Ahaldun Nagusi Rementeria Maiz jaunak hartu dau berbea	31
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bosgarren puntua irakurri dau: "Bilboko Trenbide Metropolitarraren 4. linea."	32
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea	33
- Ahaldun Nagusi Rementeria Maiz jaunak hartu dau berbea	33
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea	34
- Ahaldun Nagusi Rementeria Maiz jaunak hartu dau berbea	35
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako seigarren puntua irakurri dau: "Emakume izateagaitik hil ziran" goiburuko sentsibilizazio kanpaina grafikoa."	35
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Cabornero Alor batzarkide andreak hartu dau berbea	36
- Ahaldun Nagusi Rementeria Maiz jaunak hartu dau berbea	36
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Cabornero Alor batzarkide andreak hartu dau berbea	37
- Ahaldun Nagusi Rementeria Maiz jaunak hartu dau berbea	38
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako zazpigarren puntua irakurri dau: "Foru-sektore publikoan langileak hautatzeko eta kontratatzekeo prozesuak."	38
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	39
- Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu Etxanobe Landajuela andreak hartu dau berbea	39
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	40
- Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu Etxanobe Landajuela andreak hartu dau berbea	41
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako zortzigarren puntua irakurri dau: "Gizarte-zainketak desfamiliarizatzea eta desfeminizatzea."	41



- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea 42
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea 42
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea 43
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea 43
- Batzarra amaitu da..... 45



2023ko martiaren 29ko batzarra
goizeko 09:30ean hasi da.

Se inicia la sesión del 29 de marzo
de 2023 a las 09:30 horas.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Buenos días, señoras y señores, señor Diputado General, apoderados y apoderadas, junteros y junteras, miembros de los medios de comunicación, y a todas las personas que seguirán esta Junta General, esta última Junta General de la legislatura, por streaming, buenos días también. Y muchas gracias por acompañarnos una vez más.

Para iniciar el orden del día de hoy, el primer punto dice así:

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

1.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Interpelación
[\(R.E.11/E/2023/0000477\)](#)

Autor: Martínez Fernández, Esther (GM/TB-PPB)

Asunto: Las medidas necesarias para impulsar el comercio vizcaíno.

Documento **Principal:**
[\(R.E.11/E/2023/0000477\)](#)

Expediente: [\(11/B/18/0004269\)](#)

1.- Honako idatzi honi buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itauna
[\(11/E/2023/0000477SE\)](#)

Egilea: Martínez Fernández, Esther (GM/TB-PPB)

Gaia: Bizkaiko merkataritza bultzatzeko hartu behar diran neurriak

Dokumentu nagusia: [\(11/E/2023/0000477SE\)](#)
Espedientea: [\(11/B/18/0004269\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Corresponde el turno a la juntera que ha presentado la iniciativa. Por lo tanto, señora Martínez Fernández, tiene usted la palabra.

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Egun on.

Gaurkoan, itaun hau aurkeztu dogu, merkataritza guztiek gure Lurralde Historikoan sufriduten eta jasaten daben egoera dala ta. Bizkaiko merkataritza eredu bikaina izan da eta da, Bizkaiko ekonomiaren motorra, mendetan zehar. Beti euki doguz merkadu publikoak, artisauek, dendak, dendariak. Merkataritza hori, gure eretxiz, gure urien arimaren funtsezko eta oinarritzko parte izan da eta da. Uri guztiena, uribilduena, Bizkaiko herri guztiena, eta uste dot, ganera, gutako inork ezin izango leukeala gure urietako bizitza ulertu hurreko merkataritza hori barik. Seguru nago orain arte danok bat gatozala berbaldi honeguz. Baina beste kontu bat da sektore horren oraingo egoera, eta hori funtsezkoa da guretzat. Izan be, berbak berbak dira, eta beste gauza bat dira ekintzak.



Bizkaiko gaur egungo egoerearen adibide bat, eta txikizkako merkataritzaren azken datua da, berbarako, jarduera ekonomikoen direktorioa emoten deuskuna, urte batetik bestera merkataritza % 3 inguru jasten dabil eta. Zoritxarrez, urte honeetan errealidade hori enkistau egin da, eta uste dogu, neurri handi batean, administrazio publikoen geldikeriarengaitik jazo dala hori, eta, jakina, Foru Gobernuarengaitik be bai. Izan be, gure lurraldean ez da merkataritzarako sasoi ona. Azken urteotan be ikusiko zenuen gure Lurralde Historikoko datuak, autonomoen datuaren bilakaerea, minimoetan dagoala 2008. urtetik, eta halan ikusten da Gizarte Segurantzaren daukaguzan datuei erreparatan badeutsegu. Eta, Bizkaiko milaka merkatariren egoera horren aurrean, zer planteau dau Foru Aldundiak? Bada, beste proiektu izar bat egon zan, zuoi iragartea gustetan jatzuena, eta gero ahaztutakoen linboan ixtea. Esan zeunskuen merkataritza salbetako zala eta zalaparta handiz iragarri zan; Eup! plataformea zan, milioi askoko inbersinoa, Kutxabankegaz batera, Bizkaiko Amazon izango balitz lez saldu jakun, esan jakun tokiko merkataritza digitalizau gura zala eta, holan, Euskadin hain modan dagoan termino hori errotu, digitalizazino osoa eta Bizkaiko Amazon, holan saldu zan.

Egia esanda, uste dogu hasieratik egoala txarto planteauta; lehenik eta behin, horretan parte hartu behar ebanen, hau da, merkatarien eretxia kontuan hartu barik planteau zalako. Eginda emon jaken, eta horregaz bat egin behar eben. Eta, jakina, errealidadea burugorra da, eta daborduko argi geratu jaku zein dan proiektu horren helmena. Daukaguzan datuen arabera, zemendian 434 komertzio baino ez egoan aktibo Eup!-en, hau da, Bizkaian dagoan komertzioen % 3,95. Horraino ailegau gara zuen proiektu izar horregaz.

Banaketa horretan, esan barik doa, nabarmena da, saltokien kontzentrazino handi bat jardurearen hasieran, 2021eko ekainean. Eta gero, jakina, interesa hutsaren hurrengo izan da, esan daigun. Horren adibide ona da joan dan zemendian Bizkaiko lau saltoki baino ez zirala sartu plataforma horretan. Lau, hilebete oso baten. Bizkaiko udalerrri askotan komertzio bakar be ez da atxiki. Batzuetan bi dagoz, baina kasu askotan, bat be ez. Esan barik doa, uste dot hau ez dala aurkezpen-txartel ona proiektu izar lez saldu zeunskuen eta zergakaz ordaindu dogun zerbitutarako.

Plataforma horretaz galdetzen izan deusuegunean, denpora apur bat emon behar jakola erantzun deuskuzue, denpora gehiago behar ebala heldutasuna lortzeko, eta, jakina, emon egin deusuegu. Baina ikusten dogu denporea aurrera doala, eta egoerea, hobetu beharrean, gero eta kezagarriagoa dala, ez dirudi-ta ezelango interesik dagoanik merkatarien aldetik, ezta herritarren aldetik be. Nire ustez, daborduko ez da konfiantza- edo denpora-kontua. Besteak beste, Bizkaiko merkataritzak, zoritxarrez, ez daukalako denporarik sobran. Eta guk kudeaketa onean sinisten dogu, ez promesen kontu horretan. Ez dogu gura proiektu honek beste izar batzuen bide bera egitea, Foru Gobernuak zapuztu dituan beste izar batzuen bidea, eta horren adibide asko daukaguz, zoritxarrez.

Orain, Bizkaiko udalerrri batetik bestera ibiltan dan bulego mobikor bat martxan ipintea bururatu jatsue, baina ez dirudi horrek ekarriko dauenik konponbidea hasieratik txarto planteauta dagoan zeozeren arazoentzat, ez deusolako, jakina, merkatarien eskari bati erantzuten, eta ez deusolako herritarren eskari bati erantzuten. Eta, ostera be dinot, hasieratik txarto planteauta dago, eta, jakina, oso-oso txarto kudeatuta. Egunerokotasunak agintzen dau, eta gu honetaz eztabaidan gabilzen bitartean, seguruenik saltokiren batek betiko bajauko dau persiana.

Izan be, merkataritza digitalaren lasterketea ez zan 2021eko ekainean hasi, aspaldi-aspalditik datorren iraupen-lasterketea da. Halanda ze, aurrekariek dinoskue bide laburra egin dala, eta, esan barik doa, etorkizunerako proiektzinoa be, adituen esanetan, ez ei da oso oparua izango. Zuek be, inaugurazinoak, iragarpenak eta prentsa-oharrak egiteaz gain, ez zarie askoz harago joateko gai, gure eretxiz. Besteak beste, idea hau, ganera, ez dalako barria. Batzutan esan daikegu lehenengoak izan ginan, ahalgundu gonan hau martxan ipinten



lehenengoak izaten, eta bueno, ez dau aurrera egin. Baina hori ez da kontua, ze holango ekimenak baegozan finkatuta, Araban esate baterako, edo Donostian.

Begiratu, orain dala gitxi kontau eban irrati ezagun baten liburu-saltzaile batek, txoko bat sortu ebala Eup!-en, eta orain sentiduten dauela ez dauela funtzionau. Harek esan eban moduan, “ordu asko pasau doguz produktu asko sartzen, baina ez dot horren ordainik hartu. Ganera, plataformea abian ipini ostean, ez da egon hasieran bezalako laguntzarik.

Atzera begira jarrita, eta legegintzaldiko lau urte honeen perspektibeagaz ikusita, autortu behar deusuet ez dodala uste sektore ekonomikorik dagoenik... administrazio honek okerren tratatutako sektore ekonomikoetako batzuk merkataritza eta, jakina, autonomoak izan dira. Lehenengo eta behin, uste dot ez dala egon behar zan sentiberatasuna, Foru Aldundiarena lako Gobernu bat kudeatzeko betebeharra daukanari eskatzen jakon sentiberatasuna, izan be, lehenengo pandemiak behartu ebazan Bizkaiko saltoki asko persianea jastera, ziurbakotasun garai baten ostean, eta eskasa, gobernu batzuen beste sektoreari babesik ez emoteagaitik, eta, gero, merkataritzak aurre egin behar izan deutse bizi dogun inflazio galantari, lehengaien prezioen igoerari, argindarraren prezioaren igoerari eta barruko kontsumoaren beherakadeari.

Ez dogu ikusi zuen gobernuak, merkataritzan, ostalaritzan lez, gure lurralde historikoan autonomo asko eta saltoki asko jasaten dabilzen egoera horri laguntzeko neurri irmerik hartu dauenik, eta pentsetan dogu, garai baten aitatu zan milioi askoko inbersino hori alde batera itxita, Kutxabankek honetatik guztitik atera leikezan edo Kutxabankek euki leikezan irabazietatik harago, ez dogula ikusi, inondik inora, Bizkaiko merkataritzak onurarik euki dauenik. Plataforma horren kudeaketearen zifrak ikaragarri eskasak dira, eta, jakina, horrek ez deutso erantzun ez merkataritzaren eskari bati, ez herritarren eskari bati, prentsa-ohar bati baino, iragarki bati, eta hain ohituta gagozan zuen handitasun horri.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Martínez Fernández. En el turno de réplica, señora Basurko Urkiri, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

La Sra. **BASURKO URKIRI** andreak: Muchas gracias, señora presidenta. Junteros/as, buenos días a todos y a todas.

Lehenik eta behin, zeure galdereari erantzun gura deusot, amaitzear dagoan legegintzaldi honetan gobernu honek Bizkaiko merkataritza bultzatzeko hartu dauzan neurriak gogorarazoz. Danok dakizuenez, 2020an COVIDaren krisia hasi ostean, Bizkaiko Foru Aldundiak lurraldea suspertzeko Bizkaia Aurrera preminazko plana diseinatu eban, 12 neurri ekonomikogaz, krisi horrek sakon kaltetutako persona, enpresa eta sektore guztiei abagune hori gaintzen eta jardueria berreskuratzen preminagaz laguntzeko. Bizkaia Aurrera plana gehien kaltetutako sektoreetan zentratu zan batez be, merkataritza txikerrean eta ostalaritzan, eta, horregaitik, martxan ipinitako neurri askoren onurak jaso ahal izan ebezan, besteak beste, mikrokredituak, Enpleo Plan Berezia, kontsumoa sustatzeko bonuak, Bizkaia Aurrera digitalizazio-plana, zerga-arloko neurriak eta neurri fiskalak, eta Bizkaiko jardueria, ekonomia, kultura eta aisia dinamizatuko ebezan jardueren sustapena.

Asimismo, el Departamento de Promoción Económica reforzó la relación que teníamos con los agentes de referencia en el sector del pequeño comercio de Bizkaia: en la primera fase, durante el confinamiento, pusimos en marcha nuevos mecanismos para responder directamente a las necesidades y dudas del pequeño comercio, y en la segunda, consolidamos las ayudas para hacer frente a los retos del sector, como la digitalización, el cambio generacional o los nuevos modelos comerciales.



En los ejercicios 2021 y 2022, para seguir asesorando al pequeño comercio, continuamos apoyando a las asociaciones y facilitando bonos de comercio. También retomamos las medidas a más largo plazo, como la digitalización y profesionalización del pequeño comercio, el cambio generacional o los nuevos modelos comerciales, para lo que se recogieron actuaciones en convenios con asociaciones y se impulsó Eup!, el Portal de Compras de Bizkaia.

La crisis provocada por el COVID-19 agudizó la necesidad de poner en marcha Eup!, el Portal de Compras de Bizkaia. De hecho, esta crisis nos demostró la importancia de acelerar este proceso en sectores donde la digitalización se estaba desarrollando lentamente, como el comercio local.

La puesta en marcha de Eup!, Portal de Compras de Bizkaia, tenía como objetivo aprovechar al máximo estas dos circunstancias: por un lado, la importancia que los consumidores y las consumidoras de Bizkaia dieron a los comercios de proximidad durante los meses de confinamiento, y, por otro, que los propios comercios se dieron cuenta de que su presencia omnicanal y la digitalización avanzada de su negocio ofrecían inmejorables oportunidades.

Jakina, ez zan lan erraza, eta horretaz jaubetzen ginan, aurreko esperientzia batzuk halan ipini ebelako agerian. Baina, era berean, pentsau genduan ezinbestekoa zala asmo handiko ekimen bat martxan ipintea, helmen eta ikusgarritasun handiagoko ekimen bat, Bizkaiko tokiko merkataritza horretara hurreratuz joateko, eta haren digitalizazio-maila guztietarako beharrezkoa eta egokia zan laguntza guztia hartzeko.

Zuk dinozun moduan, Eup! izeneko tokiko merkataritzako online plataformea BBKren eskutik sortu zan, Foru Aldundiaren laguntzagaz, Bizkaiko online tokiko merkataritzaren zentro handia izateko asmoagaz, eta gaur egun Bizkaiko tokiko merkataritza txikiaren online plataformarik handiena da, 560 establezimentu atxikita, plataformeagaz sinatutako kontratuakaz.

Urte bi honeetan asko ikasi dogu, eta lehendik genkiana be egiaztatu dogu: ez dala miraririk espero behar. Ez espero gugandik, Martínez andrea, Bizkaiko saltoki txikien arazo guztiak konpontzeko neurri moduan saldutako ustezko konponbide errazak prometidutea. Hori ez da gure estiloa. Eta, horregaitik, etorkizunean be orain arte lez segiduko dogu, BBKgaz lankidetzan, Eup! ataria garatzeko, establezimentu barriak sartzen eta plataformako transakzioak handitzen. Era berean, eta hori oso garrantzitsua da, gure lurraldeko merkatariei trebakuntza eta laguntza emonez beren-beregi, Eup!-en denda birtual barria edegi ahal izan daien, holan Bizkaiko saltoki txikien digitalizazioan aurrera egiten gabiltzalako, eta omnikanalidadeak eskaintzen dituan aukera guztiak aprobetxatu ahal izateko ateak zabaltzen. Eta lan hori beti egin dogun lez egiten segiduko dogu, lankidetzan. Bizkaiko sektoreko alkarte nagusiakaz lankidetzan (Cecobi, Bizkaidendak eta Bilbaodendak). Eta horreei eskerrak emon gura deusdaz, Eup! Plataformea martxan ipinteko eta garatzeko emondako laguntzagaitik.

Asimismo, seguiremos colaborando con estas asociaciones para desarrollar las actividades derivadas del diagnóstico que compartimos sobre las necesidades del pequeño comercio de Bizkaia: la profesionalización del sector, los proyectos de transmisión empresarial, o las actuaciones de apoyo a la puesta en marcha de nuevos modelos de negocio para el comercio del futuro, que sea más atractivo para las nuevas generaciones de emprendedores y emprendedoras.

Trabajamos conjuntamente de cara al día de mañana, para diseñar cómo será el comercio del futuro. Este modelo comercial ya se puede ver en nuestras calles y pueblos: una tienda física atractiva y un excelente servicio personalizado, imposible de reproducir en el mundo digital, pero, al mismo tiempo, una tienda conectada que utiliza todas las posibilidades de la digitalización para fidelizar a su clientela actual, y captar nueva.



Y no pararemos de responder a sus necesidades. Con acciones de fondo y también complementarias. Por citar una de las últimas, las iniciativas que estamos promoviendo, combinando turismo y comercio. Un ejemplo de acciones que se derivan de la colaboración y la cercanía. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Basurko Urkiri. En el turno de réplica, tiene la palabra la señora Martínez Fernández.

La Sra. **MARTÍNEZ FERNÁNDEZ** andreak: Eta beste bat. Izan be, ez zarie gai autokritikea egiteko, zuei ez deutsuelako eragiten, ezta?, ez deutsue eragiten, eta holan hartzen dozuez erabagiak, eta holan gabilz.

“Saltokiakaz lankidetzan” esan deuskuzu. Merkatariek eskatu eutsuen hau? Ez. Bizkaitarrok eskatu geuntsuen? Ez. Nondik urten eban idea honek? Bulego batetik. Nork ordaintzen ditu ondorioak? Danok, zuek daukazuezan idea izar honeek geure zergakaz ordaintzen doguzanak, eta saltokiok, lehen esan deutsuedan moduan, ordu asko eta lan asko eman deutsezanak zalantza askogaz jaio zan eta zuek bultzatzeko gai izan ez zarien zezeri, baina, autokritikarik? Ezta apur bat be.

Beste bat. “Pandemia” dinozu, bai, gatxa izan zan. Zer egin zenduen zuek, zer eskaini zeuntseen saltokiei, merkataritza-bonuak? Merkataritza-bonuak orain dala urte askotatik dagoz ezarrita, 12 urte baino gehiago da merkataritza-bonuak dagozala. Besteak beste, nik zuekaz adostu dot hori aurrekontuetan, Batzar honeetan. Halanda ze, merkataritza-bonua ezarrita egoan. Zer egin dozue zuek pandemian, ordainketa-atzerapenak, hilebete honetan ordainketa zatikatua ordaindu behar ez dozula esatea, eta 5 hilebete barru ordaindu behar dala? Baina ordaindu egin behar da. Mikrokredituak? Bai, baina ordaindu egin behar dira. Benetan, zer babes emon deutzazue Bizkaiko merkataritzari, ostalaritzari? Errazoizkoa zana baino askoz denpora luzeagoan ateak itxita eukiteaz aparte, eta Espainia osoko beste lurralde batzuetan arrazoizkoa dala probau da. Zer egin dozue zuek?

“Helburua zan”, dinoskuzu, daborduko iraganaz gabilz berbetan. Hau da, bete bako helburuez. “Ez zan lan erraza, baina ezinbestekoa zala uste dogu”. Aizu, begira, ekonomiek funtzinonetan dabe, gizarteek funtzinonetan dabe, baita Bizkaikoak be, eta hori askotan erakutsi dogu bizkaitarrok, gizarte zibila mobilizetan danean. Ez aitatu sektorea profesinonalizetea, profesinonalizau egin beharko da, baina zuek entzun ez dozuen profesinonal asko dagoz, eta bururatu jatzuelako ipini zenduen hau martxan. Baina beharra egon barik, landu barik, alde onak eta txarrak aztertu barik. Izan be, dirudi zuek, hemen, ba, jakina, ez daukazuela zuen inbersinoak jokoan. Eta, halanda be, pandemian, plataforma horretan inbertidu diran milioi euro horreek, seguruenez, Bizkaiko merkataritzari askoz hobeto etorriko jakozan laguntzetan eta dirulaguntzetan, eta ez ordainketa-gerorapenetan, eta ez mikrokredituetan. Horreetan be bai, baina horreek itzuli egin behar dira.

“Orain arte bezala jarraituko dogu”, dinoskuzu. Ba, orain arte bezala jarraitu ezkerro jai daukagu. Begira, zemendian egindako eskaerak, bi, Bizkaia osokoak, e? “Orain arte bezala jarraituko dogu”, ba jai daukagu. 5.596 eskaera jaso dira, baina 510 ez dira behar lez burutu, batez be stock falteagaitik. Hori urte bian, urte bian, eta orain arte lez jarraituko dozuela dinoskuzue. Niri, benetan, gustu txarreko txantxea iruditzen jat zuek holango gauzak esatea.

Begira, orain dala... ea holan danok apur bat kontzienteago garen merkataritzak gure uri baxotxean zer garrantzi daukan. Orain dala urte batzuk, Leioan ekimen bat egon zala gogoratzen dot, eta danok ikusi ahal izatea gustauko litxakit. Izan be, saltoki



guztiek olana baltzak ipinii ebezen euren establezimentuetan, erakusleihatuan, ze, egia da, merkataritza da uriei bizia emoten deusena, merkataritza da jardueraren emoten dauena, merkataritza da segurtasuna emoten dauena, eta argia, eta argitasuna, eta jardueraren ekonomikoa, eta enpleoa. Herri honetako enpleoaren % 80 enpresa txiki eta ertainek sortzen dabe. Baina batzuek, bulegoetatik, hori ezin dozue ikusi, eta ez daukazu bape graziarik, foru diputatu andrea.

Nik uste dot ez eutsuela eskatu, zuei bururatu jatsuen, ez dakit nork euki dauen abantailarik plataforma hau martxan ipinteari esker. Nik badakit egin behar dana, Talde Popularrean hori pentsetan dogu, sektoreari ospea emotea dala, haren garrantzia erakustea, behar diran baliabideak eta laguntzak emotea, asko ukatu jakez-eta. Eta, jakina, merkataritza benetan sektore estrategikoa izatea sustatzea, gure lurralde historikoko sektore estrategikoa izatea, eta zuzenean merkatariek helarazoten deuskuezan eskaeretan gehiago oinarritzea, oraindino ez dakigu zein bulegoetatik ateraten diran idea horreetan baino.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Martínez Fernández. Y en el turno de réplica, tiene la palabra la representante de la Diputación, la Sra. Basurko Urkiri.

La Sra. **BASURKO URKIRI** andreak: Muchas gracias, señora presidenta.

Martínez andrea, berba solteak hartu dozuz nire berbalditik eta zeure interpretazinoa egin dozu. Esan dozunez, ez dogu autokritikarik egiten, alderantziz, egunero, egunero eta momentuero, batez be martxan ipinten doguzan neurriak, oso barneratuta daukagulako eten barik hobetu behar dala. Azken helburua? Bat gatoz horregaz, merkataritza txiker lehiakorra eukitea, gure kaleak argituko dauzana, gure herriei bizia emongo deusena, eta jardueraren eta enpleoaren sortuko dauzana. Ados gagoz. Eta egiten ez doguna da gelditu, eten barik neurri asko martxan ipinten doguz, eta horreek hobetzen saiatu.

Zelan egiten dogu? Sektoreagaz, esan dot, sektoreagaz, sektoreagaz. Begiratu aurrekontuari, Bizkaidendakegaz hitzarmena, Cecobigaz hitzarmena, Bilbaodendakegaz hitzarmena, jardueraren zehatzak, zehatzak, gaikuntzagaz, profesionalizazioagaz, belaunaldien arteko erreleboagaz eta saltoki txikietan beharrezkoak diran negozio-eredu barriakaz lotutakoak. Eta digitalizazioak be historia dauka erakunde honetan. Urte batzuk atzera egiten badozu, ikusiko dozu hitzarmen horreetan, Cecobigaz, Bizkaidendakaz eta abarregaz lantzen genbilzan hitzarmenetan, baegozala digitalizazioa bizkortzeko plataformak eta bitartekoak sortzeko ekintzak eta saiakerak, ezin deuseguzalako begiak itxi aldaketei, personaren, danon, ohituren aldaketei. Ezin deuseguz horri begiak itxi, digitalizazioa errealidade bat da. Denda fisikoak be eta, horrenbestez, omnikanalitatearen aldeko apustua egin behar dogu, eta horrek gaitasun digitalak hartzea eskatzen dau. Eta guri, erakunde garen ezkeron, ahalik eta baldintza onenak sortzea jagoku, sektoreek, kasu honetan merkataritzak, lehiakortasunaren giltzarrietan aurrera egin daien, eta kasu honetan digitalizazioan.

Halanda ze, munduko autokritika guztiagaz, uneoro eten barik hobetzeko ikuspegiagaz eta jokabideagaz, eta beste erakunde batzuek be abian ipinten dabean beste neurri batzuekako erantzukizun- eta osogarritasun-erispideagaz, erakutsi dogu neurri asko ipini doguzala martxan, eta neurri asko ipinten jarraitzen dogula, eta neurri horreek jartzen jarraituko dogula, eta egiten gabiltzen jarduerak hobetzen joango garela. Sektoreagaz lankidetzan, sektoreari eta Bizkaiko udalari ugariei entzunda, asko dira-ta, eta balio handia emoten deuse saltoki txikiei be. Nada más, muchas gracias.



La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Basurko Urkiri.

Punto 2 del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

2.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Interpelación
([R.E.11/E/2023/0000489](#))

Autor: De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

Asunto: Aspectos vinculados con la transparencia, participación y en definitiva Buen Gobierno

Documento Principal:
([R.E.11/E/2023/0000489](#))

Expediente: ([11/B/18/0004273](#))

2.- Honako idatzi honi buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itauna
([11/E/2023/0000489SE](#))

Egilea: De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

Gaia: Gardentasunagaz, parte hartzeagaz eta, azken baten, gobernu onagaz lotutako zenbait alderdi

Dokumentu nagusia: ([11/E/2023/0000489SE](#))

Espedientea: ([11/B/18/0004273](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Corresponde el turno a la juntera que ha presentado la iniciativa. Por tanto, señora De Madariaga Martín, tiene la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora presidenta. Buenos días a todos/as.

Podere publikoek euren funtzinoak betetea eta baliabide publikoak erabiltean gardenak izateko eskakizun demokratikoa ezinbesteko oinarria da herritarrei kontuak behar lez emoteko, eta erakundeen kontrola eraginkorragoa egiteko eta gobernu-maila guztien zilegitasuna sendotzeko modu bat da. Herritarrek euren erakundeakazko daukien konfiantza indartzeko, beraz, gardentasunaren aldeko apustu sendoa egin behar da, dimentsino indartsuenetako bat da-ta herritarren arazo eta kezakaz sentibera dan gobernu edegi bat bultzatzeko, eta gobernu horrek erabagiak hartzerakoan parte hartzea eta edozein kargu publiko kudeatzearen erantzukizuna sustatzeko. Holan hasten da 2016an onartu zan Bizkaiko Gardentasunari buruzko Foru Arauaren berbaurrea, gardentasuna gobernu-funtzinoak eta baliabide publikoen erabilerea kontroletako elementu moduan, baina baita erabagiak hartzerakoan herritarrek parte hartzeko palanka moduan be. Honaino, arauak dinoena. Ikusi daigun orain zein izan dan lau urte honeetan gobernuak arlo horretan egindako ekintzaren emoitza.

Adibidez, IKERFELek Aldundiaren enkarguz egindako eretxi publikoaren azterlanaren emoitzak hartzen badoguz erreferentziatzat, honako datu honeek topauko doguz: inkesta horretan, alkarrizketatutako personei galdetzen jake Gobernu honek iragarri dituan 11 proiekturen barri daukien ala ez, proiektu izartzat jo dituenak, hainbat bidetatik gainera. Esaterako, Metroaren 5. linea, Urdaibaiko Guggenheim, Ibaiazpikoa, Tourra, eskoialdeko bidegorria, Omako basoa lekualdatzea, banda zabala, iraupen luzeko zaintza-plana eta bizikleta-pista bat. Eta emoitzek dinoe, batez beste, alkarrizketatutako personen erdiek baino ez daukiela proiektu horreen barri. Izan be, iraupen luzeko zaintza-plana eta holango gai garrantzitsuak,



gainera gizartearen zati garrantzitsu baten eragin handia daukana, % 35ek baino ez dau ezagutzen. Ostera, herritarren % 73k ezagutzen dau Aldundiak Urdaibaiko Guggenheim martxan ipinteko daukan interesa. % 35ek zainketen ezagutza, % 73k Urdaibaiko Guggenheim. Eta horri jagoko nire lehenengo galderea: zein da erispidea herritarrei zein informazino helarazoko jaken eta zein ez erabagiteko. Eta galdetu egiten dogu, deigarria dalako herritarren eskubideei, kasu honetan zaintzeko eskubideari, zuzenean eragiten deutseen gaietarako buruzko ezjakintasun nabarmena.

Ikusten dozuenez, Bizkaian egiten danari buruz herritarrek daukien ezagutza nahiko txikia da garrantzi handiko gaitan, eta inkesta horretan galdetu diran beste neurri batzuek konparetan badogu, neurri garrantzitsuak, prezioen igoerari aurre egiteko martxan ipintea, adibidez, honako honeek dira emoitzak: kasu horretan, batez beste, ezagutza % 70ekoa da, hau da, 10etik 7k ezagutzen dabez neurri horreek. Eta, kasualidadez, gehien ezagutzen diranak Estaduko Gobernuak hartu dituan neurriak dira, hau da, jenteak gehiago ezagutzen ditu Estatu Espainiarrean hartzen diran erabagiak eta neurriak Bizkaian hartzen diranak baino, eta hori ez da kasualidadea. Baina okerrena da ez dala ona. Gure ustez, horrek zerikusia dauka Aldundiko Gobernuaren gardentasun faltagaz. Hasteko, ez da prentsaurrekorik emoten Gobernu Kontseilu bakotxaren ostean, Gipuzkoan eta Araban haren homologoek egiten daben lez.

Begira, webgunearen 2022ko datuak azertu ostean, eta datu horreek zuzenak badira, Bizkaiko Ahaldu Nagusiak 9 prentsaurreko emon ditu urtebetean, bizikleta-mobikortasunari buruzko lantalde bat aurkezteko, garraio publikoari buruz berba egiteko Arriolagaz egindako batzarraren barri emoteko, edo Banda Zabalaren Plana aurkezteko, bizikleta-pista bat, 2021eko aurrekontua, Omako basoaren lekualdaketea, Enpleo Plan bat, eta Fitoren kontzertua iragarteko. Hori guztia, krisi ekonomikoak eta inflazioak markautako urte baten, Gobernuak esan dau neurri ugari jarri dituala martxan, eta, antza danez, inork ez dau horreen barri izan. Bederatzi prentsaurreko urtebetean; beraz, ez da harritzekoa inkestatuen % 29k bakarrik jakitea zein dan gaur egungo Ahaldu Nagusiaren izena, eta ehuneko horrek % 56ra igoten du erantzuna iradokitzen bada. Baina ezagutza-maila aurreko legegintzaldiaren amaierakoa baino askoz txikerragoa da, 12,4 puntu gitxiago.

2022an, Gobernu honek 49 prentsaurreko emon ditu guztira, hau da, urtean 5 prentsaurreko inguru diputadu bakotxeko. Eta itxi egidazue esaten zelako baina gauza interesgarriez berba egin dan: besteak beste, errepideen kalidadea baloretako inkestearen emoitzez, hondartza-denporaldiaren balantzeaz, kontzertuen ziklo batez edo autoen zirkuitu baten proben aurkezpenaz. Ulertu daikegu Gardentasun Araua publizidade aktiboan oinarritzen dala, informazino publikoa eskuragarri egotean, eta, 3.3. artikuluan, publizidade aktiboari buruzkoan, ezarten dan lez, “ahal bada, informazinoa bitarteko telematiko eta informatiboan bidez zabaldu beharko da, batez be Egoitza Elektronikoen edo gardentasun atariaren bidez”.

Baina ikusten dozuenez, gardentasunaren ataria eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria ez dira nahikoa Jaurlaritzak abian ipintea erabagi dauzan neurri, ekintza eta proiektuak jenteari helarazoteko. Eta garrantzitsua da aitatzeta, zati hori gobernuari ahaztu egiten jakola dirudi-ta, 3.8. artikuluan honako hau gaineratzen dala: “Era berean, Foru Aldundiak eta Bizkaiko foru sektore publikoko erakundeek baliabide telematikoen ordez beste baliabide batzuk eukiko ditue informazinoa zabaltzeko”. Ze helburugaz? Ba, hondino bitarteko digitalak egunero erabilten ez dabezen herritarengana bete-betean ailegetea. Eta hori egiteko modu bat prentsaurrekoak izan daitekez, erabiliko ez balitue, noski, euren burua goratzeko, edo ohiko edozein egunkariaren ekitaldi-agendearen atal modura. Komunikabideak, prentsa, irratia eta telebista be, oso erabilgarriak dira gardentasunaren arloan, erabilera egokia emongo balitxake.

Eta kezkatzen gaitu, kezkatzen gaitu Gobernu honen opakutasunak, kezkatzen gaitu, gainera, eskura daukezan baliabideak erabilteak, informatiko barik, ogia eta



zirkua eskaintzeko, eta kezkatzen gaitue holan jarduteak sortzen dituan ondorioek. Garrantzitsuena da herritar batzuek ez dakiela zer neurri hartzen diran Bizkaiko Foru Aldundian, eta, gainera, eragiten deutseela. Bigarrenik, prentsaurrekoak gehiengo sozialarentzat garrantzi gitxi dauken gaietarako emoteak desafekzinoa eta interesik eza sortzen dauz, eta, horregaz batera, herritarren parte-hartze baxukoa, sano agirikoa dana. Herritarrek aurrekontuen proiektuei egindako alegazinoen kopurua oso txikia da, urtean 10 alegazino batez beste, eta parte-hartze bidezko aurrekontu-prozesu bat martxan ipinteko aukerea aitatu be ez dogu egingo, aurkezten dogun bakotxean zuek kontrako botoa emoten dozuelako. Foru-araudia egiten be parte-hartze baxua dago.

Eta horregaitik guztiagaitik, galdetu gura deusugu gardentasunagaz, parte-hartzeagaz, eta, azken baten, gobernu onagaz lotutako zer alderdi hobetu daitekezan zure sailaren jarduerari jagokenez. Besterik ez, eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín. Y en el turno de réplica, la señora Etxanobe Landajuela, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

La Sra. **ETXANOBE LANDAJUELA** andreak: Muchas gracias, señora presidenta. Buenos días a todos/as.

De Madariaga andrea, iruditzen jat itaun hau aurkeztu dozula Bizkaiko Foru Aldundiak gardentasunaren, gobernu onaren eta herritarren partaidetzaren arloan egiten dauen lana ezagutzeko lana hartu barik. Ez naz zure eretxiak baloretan hasiko, egitatetzat aurkeztu arren, zure eretxia besterik ez dira. Nik datuak emongo deusudaz, datuak, ulertu daizun gardentasuna, parte-hartzea eta kontuak emotea dirala Bizkaiko Foru Aldundiaren ekintza egituratzen daben gobernu edegiaren printzipioak, 2016an Gardentasunari buruzko Foru Araua onartu zanetik.

2018an eta 2019an, Aldundiak bere gobernu-eredu edegia ELGAK aztertu eiala erabagi eban. ELGAREN gobernu edegiko azterketak gobernu edegiko politiken analisi sakonak dira, eta, gomendioakaz batera, gobernu gardenagoak, partaidetzazkoagoak eta arduratsuagoak eregiten laguntzen dabe. ELGAK Bizkaiko Foru Aldundiaren gobernu edegiaren eredia bermatzen dau, eta nazinoarteko erakunde horrek egindako txostenaren inguruan bideratu dira agintaldi honetan egin doguzan jarduerak.

Edozein gobernuak gardentasunaren arloan aurrera eroan behar dauen politikearen printzipioa. Izan be, besteak beste, 2013. urteko estaduko oinarritzko araudi batek be halan ezarten dau, kontua ez da herritarrek Ahaldun Nagusiaren eta gobernu hau osotzen daben ganerako personen izena jakitea edo ez jakitea, eta ez da parametro horreen arabera neurtzen, De Madariaga andrea, ez dauka horregaz zerikusirik. Izan gaitezaz zorrotzak eta serioak, gardentasuna da herritarrei informazino egiazkoa, eskuragarria, emotea, formatu berrerabilgarrietan, eta eguneratuta, erakunde bati eta erakunde horren jarduerari buruz. Eta ekitaldi horretan, gardentasun osoagaz be bai, gobernu osotzen daben personen, saile, n egituren eta abarren barri emoten da, Legeak esaten dauelako eta gure Arauak esaten dauelako, eta holan egiten dogu.

Bigarrenik, adierazo behar da 2016. urtetik, Bizkaiko Foru Aldundian, publizidade aktiboaren printzipioa betez, Gardentasunari buruzko Foru Arauak argitaratu behar dauen informazino guztia argitaratzen dogula Bizkaia Gardena gardentasun-atarian, eta, ganera, argitaratu beharreko gitxienekoak baino gai gehiago argitaratzen doguz: kontratuak, hitzarmenak, dirulaguntzak, lantze-prozesuan dagozan arauak eta arau bateratuak, urteko araugintza-plana, antolamendua, funtzinoak, lanpostuen zerrendea, aurrekontuak, aurrekontuen



betearazpena, defizita eta zorpetzea, Kontu Orokorrak, hornitzaileei ordainketak, zerbitzu-gutunak, planak, Enpleo Publikoaren Eskaintza. 2016. urteaz geroztik, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea be beteten dogu. Foru Araua onartu zanetik, informazio publikoa eskuratzeko heldu diran eskaera guztiak ebatzi doguz, informazio publikorako 328 eskaera. Barriro dinot, planteau diran guztiak ebatzi dira.

Laugarrena. 2016. urtea ezkerostik, gardentasunari eta datu edegiei buruzko hiru urteko foru-planetan zehaztutako ibilpidean be lan egiten dogu, eta nabarmentzekoa da azken urteetan Open Data Bizkaian datuak edegitzearen alde egindako apustua. Plan horrek oinarriak ipini dauz Bizkaiko administrazio publikoek sortzen doguzan datu ugariak enpresen, unibersidadeen, alkarteen eta baliabide berrerabiltzaileen eskura ipinteko. Herritarrengan eragina daukien 1.322 datu-multzo edegi doguz Open Datan. Hona hemen adibide batzuk: Prebentzino Zerbitzuaren esku-hartzeen datuak, ortoargazkiak, suteak amateteari eta salbamentuari buruzko datuak, errepideak, kartografia, azaleren urteko aitorpena, katastroa eta abeltzaintzako ustiategiak.

Bosgarrena. 2020an 106/2020 Foru Dekretua onartu genduan, Open Data Bizkaian datuak edegitea arautzen dauena. Foru Dekretu horren bitartez, lehenengo biderrez, Bizkaiko toki-erakundeetan datu edegien atari bat eukiteko aukerea zabaldu genduan, kasu honetan Aldundiaren laguntzinoagaz. Gaur egun, lurralde horretako 32 udal dagoz atxikita Open Data Bizkaiari.

Seigarrena. Datu edegiak dinamizetako eta prestetako ekimenak ipini doguz martxan, datuak berrerabiltzean oinarritutako hainbat lehiaketa antolatu doguz; esaterako, BizkaiUP! lehiaketea, edo barriki egindako Datathon, gizarteari bizitza errazteko urtenbide bat sortzeko erronkagaz, Bizkaiko Foru Aldundiak daukazan datuen bidez. EHUguz eta Bilboko Udalgaz batera, Open Data Bilbao-Bizkaia gela be ipini dogu martxan, eta Mondragon Unibersitateagaz alkarlanean gabilz.

Zazpigarrena. Beste gai batzuei jagokenez, baina gardentasunaren arloan be bai, partaidetzea eta kalidatea eroan doguz Aldundiko sailetara. Gaur egun 22 zerbitzu-gutun daukaguz, eta hartzen diran konpromisoak modu gardenean agertzen dira horreetan. Horren adibide batzuk be emongo deusudaz: indarkeria matxistearen biktimentzako gizarte-arreta espezializauko zerbitzuaren gutuna, aurrez aurrekoa ez dan herritarren arretarako zerbitzu espezializauaren gutuna, Bizkaibusena, hondartzetako zerbitzuen gutunak, baita Garbiguneen sarearena be.

Zortzigarrena. Hizkuntza argiaren eta irakurketa errazaren programea be martxan daukagu, Aldundiak herritarrakazko hartu-emonetan erabilten dituan eukiak eta informazioa egokitzeko. 50 prestakuntza-saio emon doguz, eta 123 euki egokitu doguz. Hain zuzen be, oraintsu onetsi dan Herri Ekimen Arauemoilea arautzen dauen Foru Arauari jagokenez, lortu gura dan helburuagaz, uste genduan oso garrantzitsua zala personengana hurreratzea, eta horregaitik egokitu dogu hizkera errazera, ikusi dozuen moduan. Ez dakit zuek personei arau hori hurreratzeko ekimenik aurreikusi zenduen, Bizkaian benetan ezagutu daiten, guk egin dogu.

Gardentasunean sakontzen jarraitu neike, baina oraindino partaidetza-esparrua jorratzeke daukat, zuk be zure itaunean aitatu dozuna, eta 10 minutu baino ez daukadaz. Partaidetzaren arloari jagokenez, esan behar deusut Bizkaiko Foru Aldundiak 2019an amaitu zan lehenengo Partaidetza Plana euki ebala, eta, hain zuzen be, Batzar Nagusi honeek egin ebezen gomendioetan oinarrituta egin zala, kamara honetan bertan adituen ponentzia bat landu ostean. Gaur egun, Herritarren eta Gizartearen Partaidetzarako 2020-2030 Plana dago indarrean. Plan hori herritarrakaz, adituakaz eta Bizkaiko Foru Aldundian lan egiten daben personakaz egindako partaidetza-prozesu baten oinarrituta egin zan.



Hirugarrena. Aldundian, foru-estrategiak eta -planak egiteko parte hartzea bultzatzen dogu. Adibideak emongo deusudaz ostera be: Energia Jarduketarako Plan Orokorra, estrategia digitalekoa, Bizkaia Digitala Plan Estrategikoa, Ezkerraldea-Meatzaldeko eta Enkarterriko plan estrategikoak, edo Partaidetza Plana bera.

Laugarrena. Foru-araudia egitko parte-hartzea be bultzatzen dogu. Araudiari buruzko partaidetza-prozesuak jorrazteko gune bat prestau dogu webgunean.

Bosgarrena. Demokrazia deliberatiborako tresnak be bultzatzen doguz. Europako gobernu barritzaileenek gero eta gehiago jotzen dabe eztabaidarako prozesuak antolatzeraz, gizartearen erakusgarri lez, erronkei aurre egiteko, ezagutza partekatuz eta parte-hartzaile eta arduradun publiko guztien artean urtenbide posibleak identifikaiz. Aldundia aitzindaria da arlo horretan; izan be, 2022an lehenengo eztabaida-foroa egin eban, herritarrentzako aurrez aurreko arreteaz azterzeko. Herritarren 22 gomendio jaso ziran; aztertu dira dagoaneko, inplementau ahal izateko, eta azterketearren emoitza itzuli jake parte hartu eben personei, gure webgunean argitaratzeaz ganera.

Seigarrena. Badakigu, era berean , herritarrengandik hurbilen dagozan administrazinoetan hartzen dirala erabagirik garrantzitsuenak. Hori dala-ta, 2022tik parte-hartzea babesteko lankidetza-ildo bat daukagu zabalik, udalek eta mankomunidadeek sustatutakoa. 2022an 250.000 €bideratu genduzan, eta 2023an 300.000 €bideratuko doguz. Era berean, Bizkaitarren Sarea izeneko datu-base bat sortu dogu, eta bertan parte hartu gura dauen edonork emon daike izena. Une honetan 6.600 personak osotzen dabe, eta martxan ipinten doguzan prozesuetan aktiboki parte hartzen dabe.

Azkenik, OGPrez parte be bagara. Beste gai askori buruz berba egiten jarraitu daike, baina datuak eta egitateak dira, De Madariaga andrea. Datu eta egitateak, agirian ixten dabenak gardentasuna eta parte-hartzea dirala gobernu edegiaren ereduaren funtsezko oinarri bi, baita Aldundiaren egunerokotasuna be, eta Aldundiko Sail guztien zeharkako ikuspegiagaz egiten dogula. Aurrera segiduten dogu. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Etxanobe Landajuela. En el turno de réplica, tiene la palabra la señora De Madariaga Martín.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora presidenta.

Beno, Etxanobe Landajuela andrea, nire b berbaldiaren erdia baino gehiago datuak emoteko izan dala dinozu, baina nire eretxia dirala, eta zureak egitate bihurtzen diran datuak dirala. Nire datuak be egitateak dira, horregaitik dira datuak. Ganera, Aldundiaren webgunetik atera dodaz, gardena dan horretatik, eta, beraz, ez dot uste arazorik eukiko dozunik horreek onartzeko.

Eta, ganera, zure berbaldiaren oinarria da ez ei dodala nekerik hartu Aldundiaren webgunean gardetasunari eta arte-hartzeari buruz agertzen diran datuak begiratzeko. Zuk, osteraz, ez ei dozu irakurri nire itaunaren dokumentua, izan be ez deusazu erantzun egin deusugun galdereari, eta uste dot nahiko galdera erraza zala: zure eretxiz, gardetasunagaz, parte-hartzeagaz, eta, azken baten, gobernu onagaz lotutako zer alderdi hobetu daitekezan zure Sailaren jarduketei jagokenez. Eta horren ganean ez dozu ezer esan, eta, nire ustez, ulertzeko galdera erraza zan, ez dozu ezer esan. Zuk dinozuna da... Hona igon eta beti daukazuen jarrera bera daukazu, hau da, autokritikarik bakoa, autokonplazentzia handikoa, asko



egiten ari garela esateko, oso ondo egiten dogula, ez dagoala ezer hobetzeko, eta orduan, tira, holan geratzen gara.

Dana ondo doala dinozu, ederto. Foru Arau honen helburua da, zuk zeuk esan dozun lez, gardentasuna eta informazio publikoaren eskuragarritasuna garraibide egokiak izatea herritarrek Aldundian erabakiak hartzeko moduari buruzko azterketa sakona egin ahal izateko, funts publikoak, guztion baliabideak, zelan erabilten diran jakiteko, kontrol-testak areagotzeko be balio dau, foru-podere publikoen eta herritarren arteko interakzioa egokiak diran ala ez, eta entzute aktiboa sustatzen dan. Hori esan dozu, ganera, azken zati horretan, demokratikoki aurreratua izango dan gizarte bat garatu ahal izatearen ildotik, bestalde.

Eta dana ondo doa, zure ustez, dana ondo doa, ez dago zer aldatu, ez dago zer hobetu, erraz konpontzeko moduko gaia zan, nik uste. Hain ondo doa, ze, begiratu, galdera bat irakurriko deusut, eta ziur zuri be lagundu deusula. Zer partaidetza-bide zehatz sustatzeko asmoa dozu Bizkaian bizi diran persona guztiek, baita bazterkeria-egoera larrienean dagozanek be, euren eretxia emon daien Foru Aldundiak martxan ipiniko diturn politika, zerbitzu eta neurriei buruz? Nik bezala, galdera hori bera jaso dozu zuk, eta argi daukat holako galderak egiten dirala, hain zuzen be, ez dagoalako gardentasunik eta ez dagoalako danok parte hartzeko aukerarik. Zuek berba egiten dozue, bai, unibersidadeek informazio asko daukie, enpresek be bai, eta herritarrek, oro har? Enpresa-alkarte baten parte hartzen ez dauenak, badauka? Eta gero aitatzen dozu web, web, web, digital, digital, digital. Eta barriro irakurriko deusut, 3.8. artikulua: “Era berean, Aldundiak eta foru-sektore publikoak baliabide telematikoen ordezko baliabideak erabili behar ditue”. Eta zuk, gaur, ez dozu horretaz berba egin.

Erakunde hau opakua dala. Zuri ez jatsu gustetan guk esatea, baina egia esan, Euskadi osoan gardentasun gitxien daukana da, edo, behintzat, uste dogu argi eta garbi dagoala gardentasun gitxikoa dala; izan be, begiratu, opakua da, erakunde hori opakua da Batzar Nagusietan gagozanontzat be, eta askoz be opakoagoa da herritarrentzat, jeneralean. Geuri be, parte hartzeko mekanismoak ezagutzen doguzanoi eta informazioa non topau badakigunoi be, kostau egiten jaku informazioa eskuratzea. Eta hori Gobernu honen jarrera bat da, kezkatzen gaitu, ganera, onartzen ez dan gaia izateak, neurri horretan ez dagoalako hobekuntza-ekintzarik sartzeko aukerarik. Eta zuk, gaur, hemen, ez dozu gai hori hobetzeko proposamenik egin, eta horixe da egin jatsun galdera. Ganera, erakutsi dozu gaitasun txikia daukazula, halan esan daigun, Sailaren eta Foru Gobernuaren ikuspegi kritikoa izateko. Uste dogu oso beharrezkoa dala gobernu onaren, kalidade demokratikoaren, hainbeste aitatzen dozun horren, eta, batez be, herritarrenganako arreteta eta tratua hobetzearen bidean aurrera egiteko.

Nik espero dodana da Sail hau bihurtu daigun... eta, gardentasunaren ganean berba egiten dogunean, eta parte-hartzearen ganean berba egiten dogunean, tira, ba, gardentasuna ez daitea izan publizidade-agentziaren sinonimoa.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín. Y en el turno de réplica, la señora Etxanobe Landajueta, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

La Sra. **ETXANOBE LANDAJUELA** andreak: De Madariaga andrea, entzun gura ez dauena baino gor okerragorik ez dagoala dinoe, eta ikusi gura ez dauena baino itsu okerragorik ez dagoala. Eta zuk ez dozu entzun gura izan nik gaur hemen esan dodana, eta larriago iruditzen jat, era berean, ez dozula ikusi gura izan Bizkaiko Foru Aldundiak orain dala 8 urtetik gobernu edegiaren, gardentasunaren eta partaidetzaren arloan egiten dauen beharra. Eta horrek, gehienbat, tristura handia sortzen deust, batez be gaur hemen erakusten zabilzana Aldundiko profesionalek eta teknikariek egiten daben lanarenganako errespetu faltea dalako, eta errespetu faltea, era berean, zuk zeuk be ordezkutzen dozuzan Bizkaiko herritarrakana.



Argi itxi dozu gaur hemen, Bizkaia hobe eregiteko ekarpena egin eta lagundu beharrean, nahiago dozula egunero profesional handiak egiten dabena deseregi eta deformatu. Izan be, zuk gaur hemen debalauu egin dozuz Bizkaiko herritarrek Bizkaiko Foru Aldundian eta lurraldeko udalerrietan egin diran partaidetza-prozesuetan egindako ekarpenak. Zuentzat, zuek dinozuen moduan egiten ez bada, txarto eginda dago, ez dau balio, baina ez dozue ezer zehatzik proponiduten.

Nik animetan zaitut, egin ohi dozuezan eslogan erraz eta trazu lodikoko diskurso horren orde, zeinetan dana ezelango zehaztasun barik nahasten dan, hurrengoan gardentasunaren eta parte-hartzearen atarrietan argitaratutako informazioa irakurtera. Era berean, ELGAK Bizkaiko Foru Aldundiko gobernu edegiari buruz egindako txostena irakurtera, gardentasun- eta partaidetza-planak be irakurtera, haren ebaluazioak eta memoriak irakurtera, eta, hortik abiauta, ekarpen eraikitzaileak eta hobekuntza-ekarpenak egitera. Irakurri, mesedez, egindako partaidetza-prozesuei buruz dagoan dokumentazioa be, zeure diskursoak dira-ta herritarrengandik, haren beharretatik, interesetatik eta eskaeretatik gero eta urrunago dagozanak. Bene-benetan, zintzotasun osoz animetan zaitut, ganera, aldarre eraikitzaileagaz etorri zaitezana.

Bizkaiko Foru Aldundia Administrazio gardena eta edegia da, eta Gardentasunari buruzko Foru Arauak ezartzen dauen informazio guztia argitaratzen eta eskaintzen dau. Herritarrek bere zereginetan, parte-hartzean inpliketea errazten dauen administrazio bat da Aldundia. Uste dot nahikoa datu eta informazio emon dodala gaur hemen, euki dodan denporan. Era berean, esan dot gure borondatea beti dala hobetzea, eta etorkizuneko Parte-hartze Planetan eta etorkizuneko Gardentasun eta Datu Edegien Planaren esparruan ezarriko dira emon beharreko hurrengo pausuak eta garatu beharreko ekintzak, administrazio edegiagoa eta herritarrengandik hurbilagoa lortzeko bidean aurrera egiten jarraitzeko.

